



GUGGENHEIM BILBAO

ERAKUSKETAK

2013



ERAKUSKETA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Historiaren istorioak***
Komisarioa: Petra Joos
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa
Data: Urtarrilak 22–maiatzak 19, 2013
Aretoak: 305, 306, 307



Cy Twombly, George Baselitz eta historiaren interpretazio berezia

Guggenheim Bilbao Bildumaren aurkezpen honetan, *Historiaren istorioak* erakusketan, bi lan nagusi aurrez aurre jarri dira: bata Cy Twomblyrena eta bestea Georg Baselitzena. Bi lanotan egileek bizitako istorioak txertatu dituzte, eta, halaber, pertsonaia historiko jakin batzuen nondik norakoak berraztertutako betetako arte-lengoaia erabiliz; halere, ez zaizkie espresionismoei lotzen. Aztertutako historiaren aldiak bata bestetik oso urrun daude, gainera.

Bai Twomblyren bai Baselitzen lan egiteko modua artista garaikide jakin batzuek gertakizun historikoetatik abiatuta erabilitakotik aldentzen da. Izan ere, artista garaikide horiek “irudi bihurtzen dute azken aldiko gauzen mundua”. Era berean, Ernst van Alphen-ek “historiografia berria” terminoa erabili du egungo artista garaikide horien joera bat izendatzeko, hain zuzen, honakoa: historiaren eta iraganaren gaineko lanak egiteko orduan, oinordetzan jasotako errealitatea “postproduzio” ariketa baten bidez eraldatzen dute, beraz, “historialari”ak dira, Walter Benjaminek emandako adieran, bederen. Twomblyk eta Baselitzek ez dute halakorik egiten: ez dute historia bereganatzen errealitatea beste ikuspegi batetik edota beste modu batean agertzeko, eta ez dituzte gertakizun historikoak berrinterpretatzen; aitzitik, gertakizun historikoetan oinarritutako istorioak egiten dituzte, eta horiek artistaren ikuspuntutik kontatzen. Zirikatzaileak dira, alabaina, artearen alorrean, ez politikarenean ezta gizartearenean.

Didaktikak artista bi hauen obra aztertzen du haien hitzen bitartez; bertan, aipu eta ikus-entzunezko materialei esker artista hauen pentsaera, sortze prozesua, historiari ematen dioten garrantzia, kolorearen erabilera, materialena eta abar ezagutzea aukeran ditugu.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***L'Art en guerre. Frantzia, 1938-1947: Picassotik Dubuffetera***

Komisarioak: Jacqueline Munck eta Laurence Bertrand-Dorléac

Egoitzak: Musée d'Art moderne de la Ville de Paris, Paris-Musées eta Guggenheim Bilbao Museoa

Datak: Martxoak 16–irailak 8, 2013

Aretoak: Bigarren solairukoak

Gerrari gerra eginiko ehun bat artisten 500 obratik gora aurkeztuko dira.



L'art en guerre, Frantzia, 1938–1947: Picassotik Dubuffetera erakusketak agerian jarriko du nola Bigarren Mundu Gerran eta nazien okupazioan Frantzia bizi izandako zapalketa-giro mehatxagarriaren aurrean, garaiko artistak kontsigna ofizialen aurka altxatu ziren, artearen edukia aldatuko zuten erantzun estetiko berritzaileen bidez. Erakusketa hau honako hauek antolatu dute : Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris, Paris-Musées eta Guggenheim Bilbao Museoa.

BBVA Fundazioaren babes aipagarria duen erakusketa paregabe honetan, ehun artistaren 400 lan baino gehiago bistaraziko dira. Agerian jarriko dute nolakoa izan zen sortzaile horien erresistentzia eta erantzuteko modua, “gerrari gerra eginez”, eskasiak inposatutako forma eta materialak erabiliz; baita askatasun-adierazpen ororen kontrako jarrerarik bortitzenak zituzten lekuetan ere.

Georges Braque, Jean Dubuffet, Marcel Duchamp, Alberto Giacometti, Vasily Kandinsky, Pablo Picasso, Joseph Steib eta beste artista handi batzuen lanekin batera, publiko zabalaren aurrean ezezagunak diren beste sortzaileen lanak erakutsiko dira. Ibilbide tematikoa eta kronologikoa izango da, hamabi ataletan zehar eta Museoaren bigarren solairuan barrena.

Erakusketak, Jacqueline Munck eta Laurence Bertrand Dorléac erakusketako komisarioek dioten bezala, balio izango du agerian uzteko “etxebizitzaren, tailerren, babeslekuen, kontzentrazio-eremuen, kartzelen eta ospitale psikiatrikoen intimitatean gelditu zen guztia, beti ere historiaren itzalean”.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Barroko neurrigabea. Cattelanetik Zurbaranera – Bizitza ezegonkorren adierazpideak***

Komisarioa: Bice Curiger

Egoitza: Kunsthhaus Zürich eta Guggenheim Bilbao Museoa

Data: ekainak 14–urriak 6, 2013

Aretoak: Hirugarren solairua



Erakusketa berezi-berezia: egungo artea eta XVII. mendeko artea aurrez aurre

Erakusketa elkarrekin antolatu dute Kunsthhaus Zürich-ek eta Guggenheim Bilbao Museoa. XVII. mendeko lanak egungo artelan garaikideekin uztartuko ditu, Barrokoaren ohiko noziotik aldentzeko; ez dira erakusketaren ardatz Barrokoari lotutako handitasuna, apaingarrien joritasuna eta urre kolorearen ugaritasuna. Aitzitik, gai du hilezkortasunaren menpeko bizitzaren ezegonkortasuna: bizitasun ezegonkorra, beroa, grinatsua eta galdua.

Orainalditik, *Barroko neurrigabeak* historiari so egiten dio, baita nekazal giroari, oieskeriari, erlijiotasunari, sentsualitateari, groteskoari, barregarriari eta gizon gisakoari ere. Gai horien inguruan antolatzen dira obrak, baina antolaketa horrek analogia tematiko eta formalak saihesten ditu; izan ere, XVII. mendeko eta egungo artelanak elkarrekin kokatzeko zinemako baliabideen antzekoak erabiliko dira. Horrela adieraziko da, bi errealitate ezberdin izan arren, antzekotasunak dituztela eta bata bestea elikatzen duela; gainera, horrek ikuslearen begirada aberastuko du. Besteren artean, honako hauen artelanak izango dira ikusgai: Francisco de Zurbarán, Alessandro Magnasco, Jan Steen, Maurizio Cattelan, Paul McCarthy eta Cindy Sherman.

Kunsthhaus Zürich-eko artelanez gain, beste museo batzuek ere artelan klasikoak maileguan utzi dituzte, tartean, Madrilgo El Prado, Vienako Kunsthistorisches Museum, Frankfurtoko Städel Museum eta Bilboko Arte Ederren Museoa.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA



Titulua: ***Antoni Tàpies. Objektutik eskulturara (1964-2009)***
Komisarioa: Álvaro Rodríguez Fominaya
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa
Data: 2013ko urriak 3–2014ko urtarrilak 19
Aretoak: Bigarren solairua

Tàpies-en eskultura lanen berrikusketa haren heriotzaren lehenengo urteurrenean

Antoni Tàpies. Objektutik eskulturara (1964–2009) artistaren eskulturak eta objektuak sakontasunean berraztertzen dituen lehen erakusketa da. Artistaren ibilbide osoa hartuko du, ia bost hamarkada. 90 bat lan bilduko dira, hasierako objektuak eta muntaiak eta azkenaldiko terrakotazko eta brontzezko eskulturak barne. Erakusketan agerian jarriko da Antoni Tàpiesek eskulturagintzaren eta objektugintzaren inguruko gaietan interesa zuela; are gehiago, interes hori bere artearen garapenerako gakoa izan zela, bizitza osoan biziki landu baitzuen. Ibilbide kronologikoa izango bada ere, artistak landutako gaiak, teknikak eta irudiak ere erakusketaren ardatz izango dira. Guggenheim Museoei aurretik beste bi erakusketa eskaini dizkiote artista katalan honi: 1962an Lawrence Allowayk antolatutako atzera begirako bat egin zen, eta 1995ean Carmen Giménezek beste bat taxutu zuen; honako hau beste horiek osagarria izango da, Álvaro Rodríguez Fominaya izango du komisario eta 2013ko urrian irekiko da.

Muntaia noziotik abiatu zen Tàpies objektuak eta eskulturak egiteko alde formalak arakatzeko. Interes hori bizitza osoan landu zuen; izan ere, ikerketa-lerro horrek arte-gai eta -ardura jakin batzuk aditzera emateko aukera eman zion. 1960ko hamarkadan egin zituen lehen objektu autonomoak, argiro tridimentsionalak zirenak, eta garai horretakoak dira ondoko artean eragin gehien izan zuten objektuak. Hala ere, 1980ko hamarkada arte ez zuen “eskultura” hitza erabili bere arte-lengoaia deskribatzeko; ordura arteko ibilbidea hartzen du erakusketak bere baitan eta aditzera emango du nola apurka-apurka askotariko materialak erabiltzen hasi zen (terrakota, brontzea eta abar).

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: ***Garmendia, Maneros-Zabala, Salaberria - Prozesua eta metodoa: artxibategitik ez-lekura***

Komisarioa: Alvaro Rodríguez Fominaya eta Lucía Aguirre

Datak: 2013ko urriak 31-2014ko otsailak 16

Aretoak: Hirugarren solairua

Gaur egungo artista euskaldunak Guggenheim Bilbao Museoa

Historiaren dekonstrukzioa eta simulazioa erabiltzen dituzte Iñaki Garmendiak (Ordizia, 1972), Xabier Salaberriak (Donostia, 1969) eta Erlea Maneros-Zabalak (Bilbo, 1977) artelanak egiteko. Estrategia horiez gain, artea jorrazteko berregite-, bereganatze- eta berrinterpretatzeprosuez baliatzen dira. Erakusketa honetan, bere funtsezko asmo bati jarraiki, inguruko artetiroa arakatuko du Guggenheim Bilbao Museoa, artetintza horren testuingurua azaltzeko.



Hiru egitura autonomoetan datza erakusketa; egiturek, halere, interdependenteak dira eta hiru egileen lana hartuko dute. Ezaugarri horri esker, hiruron lanak elkar elikatuko dute. Egitura bakoitzean artista banaren ibilbidea berraztertuko da, eta, gainera, artelan egin berriak ikusgai jarriko dira, erakusketarako bereziki sortutakoak.

Iñaki Garmendiak tokiko intrahistoriako ekintzak eta osagai jakin batzuk txertatzen ditu bere lanetan; horrela, intrahistoria horren osagai esanguratsuenak abstraktu bihurtzen ditu, eta, hartara, marko global batean ezar ditzake. Hark hartutako irudien identifikazioa ez da erraza: ikusleak beraren historiari abiatzen da irudiok interpretatzeko, horiek autonomoak izan arren.

Erlea Maneros-Zabalak pinturari, horma-irudiei, eta irudiak erreproduzitzeko baliabide mekanikoei lotutako euskarriak jorrazten ditu. Artxibategia, oroimena eta hedabideek gaur egungo historiaren egindako interpretazioa dira haren lanen gai batzuk.

Xabier Salaberriak bere belaunaldikoen ez bezalako artetintza jorrazten du eta haren sortzaile da: artearen, diseinuaren, arkitekturaren eta historiaren arteko eremuetan lan egiten du. Lankidetzaren eta parte-hartze estrategiak erabiltzen ditu haren sistemak erabiltzaileari eta beste arte-agenteei irekitzeko.

ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



FITXA TEKNIKOA

Titulua: *Guggenheim Bilbao Museoaren aukeraketak IV*
Komisarioa: Petra Joos
Egoitza: Guggenheim Bilbao Museoa
Datak: 2013ko azaroak 26-2014ko iraila
Aretoak: 103 eta 105

Guggenheim Bilbao Museoaren funtsei soilik eskainitako zikloaren laugarren eta azken erakusketa

Erakusketa hau 2010ean hasitako ziklo baten azkena da. Ziklo horrek asmo zuen Museoaren arte-funtsak modu errazean ikusleari erakustea. Horretarako, lehen erakusketan 1950eko eta 1960ko hamarkadetako AEBko eta Europako artisten hartu-emanak aztertu genituen (tartean, Mark Rothko, Jorge Oteiza, Robert Motherwell, Yves Klein, Antonio Saura, Willem de Kooning, Clyfford Still eta Eduardo Chillida); bigarren, 1970eko eta 1980ko hamarkadako arte-eztabaidetan murgildu ginen, Europako artista belaunaldi oso baten eskutik (besteren artean, Georg Baselitz, Christian Boltanski, Anselm Kiefer, Gerhard Richter, Francesc Torres eta Richard Long); eta hirugarren, Museoko 103 eta 105 aretoetan 2013ko urriara arte ikusgai izango dena, Pop artearen irudi gailenen oinordetza ikertzen da, baita pop artistekin lotura izan duten egileen lana ere (honako hauen lanen bidez: Andy Warhol, Jean-Michel Basquiat, Robert Rauschenberg eta Alex Katz, besteak beste).

Laugarren eta azken erakusketa honetan, azkenaldiko artisten jardunean sakonduko dugu, 1990eko hamarkadatik garatu diren askotariko arte-lengoiak agerian jartzeko. Beste askoren artean, Prudencio Irazabalen eta José Manuel Ballesterren lanak izango dira ikusgai.

Argibide gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 35 90 08
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es